



ERREHABILITAZIOKO TRATAMENDUA

GALDERAK ETA ERANTZUNAK

Errehabilitazioko tratamenduan aritzeko itxaronzerrendan zaude.

Noiz hasiko dut tratamendua?

Telefonoz edo gutun bidez jarriko gara zurekin harremanetan, tratamendua lehenbailehen hasteko. Horretarako, zer leku dagoen eta zenbateko larritasuna duzun hartuko da kontuan.

Nola joan behar dut tratamendura?

- Tratamenduko saio bakoitzera dutxatuta joan behar duzu, eta arropa erosoarekin, janzerreza eta eranzerreza.
 - Bizkarrezurreko tratamendurako txandala.
 - Zangoetako tratamendurako galtza motzak.
 - Sorbalda eta lepoko tratamendurako kamiseta tiranteduna.
 - Igerilekuko tratamendurako bainujantzia, txanoa eta txankletak.
- Ahal dela, ez eraman edergailurik edo metalezko gauzarik, tratamendua hobeto egiteko.
- Ahal dela, ez ekarri baliozko gauzarik.
- Baditugu aldagelak dutxa eta armairu itxiekin zuk erabiltzeko.

Zenbat denbora irauten du tratamenduak?

- Saio-kopurua zure mediku errehabilitatzaileak aginduko du.
- Saio bakoitzaren iraupena zure fisioterapeutak adieraziko dizu.

Noiz ikusiko nau berriro mediku errehabilitatzaileak?

- Tratamenduko lehen egunean adieraziko dizugu kontsulta-txartelan.
- Azterketa-kontsulta horretan medikuak baloratuko du zure eboluzioa, eta erabakiko du tratamenduarekin jarraitu ala ez.

Norbaitekin joan behar dut?

Hala nahi baduzu, norbaitekin joan zaitezke, baina ezingo da tratamenduko aldean sartu, itxarongelan egon beharko du zure zain.

Hutsegiteak

- Tratamendura etorri ezin baduzu, zure fisioterapeutari aurrez jakinarazi beharko diozu, edo Zerbitzuan mezua utzi.

Tel.: 945-007000 (5014 luzapena). Bestela, justifikatu gabe hiru aldiz huts egiten baduzu, borondatezko altatzat hartuko dugu.

